



Asteazkena
2010-05-19

VIII. URTEA 2.004. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Peru-Harri museoaren kanpoaldean Euskal Herriko historiarekin lotutako eskulturak ikusi ahal izango dira. A. IMAZ

PERU-HARRI, HARRIEK HITZ EGITEN DUTENeko TOKIA

LEITZA Iñaki Perurena harri-jasotzaileak antropologia, historia, mitologia, euskara, kirola eta naturaren topagunea osatu du 6-7

Udapasa artistikoak antolatu dituzte berriz ere

TOLOSA Eduardo Mokoroa Musika Eskolan izango dira uztailearen 5etik 16ra 3



I. GARCIA

JON ANDER KARRERA ARETO FUTBOLEKO JOKALARIA

«Bigarren mailara igotzerakoan bizitu nuen etaparik politena»

TOLOSA Ibarako Lauburun 17 urte eman eta gero denboraldiko azken partida jokatu berri du 5

Capoeira erakustaldia hilaren 22an, 17:30ean

Tolosa » Goienetxe Fundazioko kideak eta Aldeia de Bambas taldeak eskainiko dute dantza ikuskizuna.

sevillanak, saltsa, capoeira eta abarriburuzko ikastaroak jasotuzte. Barnean daramaten erritmoa erakusteko asmoz, hilaren 22an, larunbatean, kalera irtengo dira.

Capoeira erakustaldia

Goienetxe Fundazioko kideen esanetan, ekimenaren helburua komunitatearen aurrian agertzea da, kalera irtetea. Helburu zehatz hau gauzatzeko, lankide batek jarri zien ideia mahai gainean. «Praktiketan ari den lankide bat capoeira dantzatzeko duen talde bateko partaidea da. Berak proposatu zuen ideia. Aldeia de Bambas taldeko lagunekin hitz egin ostean, Tolosan ekitaldiren bat eskaintze-

ko prest zeudela esan ziguten». Hori jakin orduko, Goienetxe Fundazioko kideak lanean hasi ziren. Bertan biltzen diren artistak berriz capoeira urratsak lantzeari ekin zioten, Aldeia de Bambas taldekoekin batera erakustaldian parte hartzeko asmoz. Emaizta larunbat honetan plazaratuko dute, 17:30ean, Santa Maria elizaren ondoan dagoen Armeria plazan. Parke Jurasikoa bezalaxe ezaguna da gune hau.

Goienetxetik eskualdeko herritar guztiak gonbidatu dituzte Tolosako udaletxearen atzean aurkitzen den parke honetara. Ondoren gainera, meriendatxo bat egingo dute denen artean.

ASIERIMAZ

Gureak Taldea-ren barnean aurkitzen da Goienetxe Fundazioa. Ezintasun intelektuala duten pertsonekin lan egiten du Tolosan, astelenetik ostiralera, Agintari kalean Atzegik duen lokalean.

Eguneko Zentro honetatik astean behin, Tolosako Kultur Etxera joaten dira Goienetxe Fundazioko kideak, dantza ikastera. Jadanik



Eskolako Agenda 21 programa aurkezten aritu dira Ibarrako udaletxean. HITZA

Uraren gaiarekin jarraitzeko gaur, II. Topaketak

Tolosa » Ekitaldi guztiak goizean zehar burutuko dira; Musika Eskolan bilduko dira eskualdeko ikasleak 09:10ean.

ERREDAKZIOA

Eskolako Agenda 21 programa lantzen eskualdeko 13 udalerritako haurrak aritu dira. Uraren gaia ardatz hartuta, urte guztian zehar ikerketa bat burutu dute eta azken asteetan udaletxetara joan dira, udal ordezkari euren lana aurkeztera. Ibarrako haurrak adibidez, herenegun elkartu ziren herriko agintariek.

Lanketa hau amaitu ondoren, gaur, hilak 19, Tolosako Musika Eskolan elkartuko dira Eskolako Agenda 21 programan parte hartu duten hainbat ikasle, II. Topaketetan.

Deialdira 140 pertsona baino gehiago etorriko dira (ikasle, irakasle, teknikari...) eta hauek 6.055 ikasle eta ehunka irakasle eta gurasoez osatutako eskola-komuni-

tatearen ordezkariak izango ditugu; azken finean ia eskualde osoko eskola-komunitatearen ordezkariak etorriko dira.

Bertan bilduko diren parte hartzaileek elkar trukaketa gunea izango dute eta egingo duten lanaren ondorioak gaiarekin zerkusia duten udalaz gaineko erakundeei helaraziko dizkiete. Hau guztiagatik antolatzen dira Tolosaldeko Eskolako Agenda 21 programaren II. Topaketak.

» EGITARAUA

Tolosako Musika Eskolan

- **09:15-09:30.** Harrera eta informazioaren banaketa.
- **09:10-09:45.** Tolosako alkatearen ongietorria.
- **09:45-09:50.** Taldea egin beharreko lanaren aurkezpena.
- **09:50-11:00.** Lana taldeka.
- **11:00-11:20.** Hamaiketakoa.
- **11:20-11:50.** Egingako lanaren emaitzak: *Pentsa Globalean eta herrian eragin.*
- **11:50-12:00.** Amaiera.



Lurreamendin musika koroen eguna

TOLOSA » Lurreamendiko egoiliarrek bisita dotorea jasotzen atzokoan. Laskorain Ikastolako eta Paz de Zingandako koroek hainbat abesti kantatu zituzten bertan, azken hauek Atarrabiakoak dira, eta ikasleen

ahotsak entzuten egoiliarrek oso gustura egon ziren, txalo eta oiher artean ospatzen baituzten ekimena. Unerik politena orde, amaierakoa izan zen agian, Lurreamendiko koroak *Boga, boga* abestu zuenean. A.I.

Laburrak

'Zutik Tolosa, Zutik Euskal Herria!' hitzaldia bihar

TOLOSA » Ezker Abertzaleak aldaketa politikoa eta sozialaren inguruko hitzaldia eskainiko du bihar, hilak 20, Topic-en 19:30ean. Prozesu Demokratikoa nola gauzatu azalduko dute bertan. Herritar guztiak gonbidatu dituzte.

Sanjoanak antolatzeko Jai batzordearen bilera

TOLOSA » Sanjoanak antolatzeko Jai batzordearen bilera egingo dute bihar, hilak 20, Tolosako Kultur Etxean. 19:00etan bilduko dira bertan eta herritarrei parte hartzeko deia luzatu diete.

Lapurreta egiten saiatzeagatik atxilotuta

ZIZURKIL » Ertzaintzak bi gizonetako atxilotu zituen atzo goizaldean Zizurkilen, ustez taberna batean lapurreta egiten saiatu zirelako. Gizonetakoek 21 eta 41 urte dituzte Ertzaintzaren arabera.

KEY-LAN
Jarraitza

Nafarroa etorb. 13 behean - TOLOSA
Mag.: 678 41 79 22
Tel./Fax: 943 65 03 13

Gidariak behar dira dokumentazioa eta balijak banatzeko.
Postu finkoak erakunde publikoetan.
Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

Lan publikoetarako zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenuko langileak behar dira.
Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

Telefonistak/harreeragileak behar dira eraikin publikoetarako.
Postu finkoak.
Lanaldi jarraia.

600-25 42 40

Barruan dugun artista ateratzeko udaleku bereziak

Aisia » Artekin elkarteak antolatuta, udapasa artistikoak egingo dituzte Musika Eskolan, uztailearen 5etik 16ra bitarte.

IÑIGO TERRADILLOS

Udako opor egunak era desberdin batean igarotzeko aukera emango du, beste behin, Musika Eskolan. Izan ere, «pasa den urtean izan zuen harrera ona ikusita», aurten ere udapasa artistikoak egingo dituzte uztailearen 5etik 16ra bitarte 4 urtetik 12 urte arteko gaztetxoentzat. Artekin elkarteak bultzatzen duen ekimen honekin «gazteak ederki igarotzearekin batera artea hurbildu nahi dituzte, musika, dantza edota arte plastikoak bezalako disziplinak landuz».

Duela zazpi urte hasi ziren horrelako ekimenekin Euskal Herrian, baina Tolosan iaz antolatu zuten estreinakoz. Marijo Ribate Artekin elkarteak kideak azaltzen duenez, «eskaintzan zegoen hutsunea» bete nahi izan dute udapasa artistikoekin: «udari begira kirolarekin loturiko ekintzak baino ez dira izaten, eta alde artistikoa hutsik geratzen zela ikusi genuen».

Hamar eguneko iraupena du ekimenak eta modulotan banatzen dute: «musika, dantza, antzerkia, gorputzaren espresioa, erlaxazio teknika edota kantua lantzen ditugu, beti ere, musika oinarri hartuta». Bertako musika nahiz atzerrikoa jorratzen dute, «musika hizkuntza unibertsala delako». Dantzen saioan koreografiak lantzen dituzte, eta «dibertitzeaz gain, entzumena, erritmoa



Pasa den urtean eginiko udapasaren emanaldiko une bat. R.C.

edotasikomotrizitate bezalakoak lantzen dituzte». Erlaxazioa aurtzen sartu dute, «haurrek ere horren beharra izaten baitute, eta arnasketa ondo egiten ikasiko dute».

«Jolastuz ikasi»

Udapasaren azken eguna berezia izaten da, emanaldia eskaintzen dutelako familia guztiei zuzendua, eta hor udalekuan zehar ikasi duten erakusten dute. «Hamar egu-

netan miraria edo magia gertatzen dela dirudi gaztetxoak asko ikasten baitute; kantak eta dantzak egiten dituzte eta emanaldia amaitzeko guztien artean abesti bat kantatzen dute. Azken egunetan eskulanak ere egiten dituzte emanaldirako osagaiak eta prestatzeko, eta oso polita geratzen da guztia. Gainera, haurren artean ere harremanak sortzeko oso egokia izaten da».

» DATUAK

- **Zer.** Udapasa artistikoak.
- **Noiz.** Uztailearen 5etik 16ra. Astelehenerik ostiralera, 09:30etik 13:30era.
- **Non.** Eduardo Mokoroa Musika Eskolan.
- **Adin tartea.** 4 urtetik 12 urte bitarteko gaztetxoak.
- **Izen-ematea.** Maiatzaren 31ra arte. 10:00etatik 13:00etara Musika Eskolan. 943 65 15 93 telefono zenbakian edo musika@tolosakoudala.net helbidean eska daiteke izen-emate orria edota informazio gehiago.
- **Prezioa.** 120 euro haur bakoitzeko. 2 anai-arrebaren kasuan 96 euro eta 3 anai-arrebaren kasuan 84 euro.

Ribatek dioenaren arabera, artea leku guztietan dago, kalean, etxean... eta batzuetan ez gara konturatzen guk ere gaitasuna dugula barruan. «Haurrek barruan duten hori landu, eta ateratzeko aukera dute, eta era berean, oso ondo pasatzen dute, jolastuz egiten baitute». Gainera, haur guztiek dute lekua udaleku berezi hauetan, «ez dute zertan musikaz edota dantaz ezagutzarik izan behar».

Espedizioa arrakastaz amaituta

Mendia » Atzo iritsi ziren Shisha Pangmako oinarriko kanpalekura Eburne Pasaban eta espediziokideak.

ERREDAKZIOA

Eburne Pasaban eta gainerako espediziokideak Asier Izagirre, Alex Chicon eta Nacho Orviz, Shisha Pangmako oinarriko kanpalekura iritsi dira «inolako eragozpenik gabe». Atzo, Euskal Herrian 09:40 zirenean ailegatu ziren 5.600 metroa kokaturiko kanpalekura. «Nekaturik» daudela adierazi zuten, «ez soilik azken egun hauengatik, baizik eta espedizio osoak iraun dituen 75 egunengatik».

Oinarriko kanpalekuan «harrera beroa» egin zieten euren taldekideek, «emozio handiko unea» izan zelarik. Mendigoizale tolosarrak «oso pozik eta hunkiturik» dagoela adierazi zuten «urtetako ametsabete egin delako». Hala, berak gailurrak igo dituela, baina hamalau zortzimilakoak egitea talde lana izan dela azaldu zuten: «proiektu hau jende askok osatzen dugu, eta ni multzo horren zati bat baino ez naiz; hau guztia denon lanarengatik izan da posible».

Igoera eta jaitsiera lasaia

Shisha Pangmako igoera lasaia izan dela dio tolosarrak: «Aurreikusitako baino ordubete berandugoa irten ginen gailurrerantz, eguzkia ateratzearekin batera, baina, hala



Pasaban eta espediziokideak Shisha Pangmako gailurrera ailegatu, atzo. RIVE

ere, azkenean espero baino lehenago egin genuen gailurra; gailurrerako azken metroak izan ziren arrisksuenak, baina ez genuen inolako arazorik izan».

Jaisterakoan ere ez dute zailtasunik izan, eta behin oinarriko kanpalekuan daudelarik, atsedean hartuko dute beharrezko bideari ekin aurretik. Atzo lorpena ospatzeko festa izan zuten, eta gaur,

materia la jaitsiko diete. Bihar Nyalam-era abiatuko dira mendizaleak.

Katmandura, Nepaleko hiriburua, berriz, etzi iristea espero dute. Han mendigoizale tolosarrak bere gurasoekin egingo du topo, beraz, ospakizunek jarraipena izango dute. Datorren astean, hilaren 25ean, hartuko dute Espainiarako hegazkina.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Harpidedun egiten bazara aisialdirako bonu bat opari

Eroski Bidaiek eta Baskinbox etxean eskutik.

40 eskaintzatik gora aukeratzeko Euskal Herrian zehar.

Gozatu berria

Hotel bateko egonaldi bat, 2 laguntzarako bazkari bat edo abentura eta kirol ekitaldi bat izango duzu aukeran.

HARRERAMENETARAKO
943-30 43 45 • harpidetza@berria.info

Uztailearen 15ean
Tenerifeko astebeteko egonaldia zotz egingo dugu BERRIaren harpidedunen artean.
Eroski Bidaiek-en eskutik.

Orain, beste arrazoi bat BERRIaren harpidedun izateko.

EROSKI/Baskinbox zuzen AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARATZ. **berria**

Harri Jaiak irekiko du Bedaioko Kultur Astea

Bedaio » Bihar ospatuko dute Harri Jaia 11:00etatik aurrera, meza, bertsolari saioa eta trikitilarien musikarekin.

ERREDAKZIOA

Tradizio handiko festak emango dio hasiera ostegunean Bedaioko Kultur Asteari.

Harri Jaia ohitura zaharretako jai preziatua da bedaiotarrentzat. Noiztik ospatzen den ziur ez bada, urtero Igokunde eguneko hurrengo ostegunean ospatzen da, aurtengoan maiatzaren 20ean.

Jatorriak eguraldiarekin duela zerikusia badakite, hala ere, Bedaiotar adinekoek diotenez: «zenbait urtez, egun berean gertatu zen harri erauntsia. Kaltea ere berarekin ekartzen zuen eguraldiak». Baserrietako uzta kaltetzen zituen harriak, baita teilatuak eta belardiak ere. «Egoera triste» uzten zuen harri erauntsiak Bedaio.

Eguraldia eta erlijioa uztartu eta

» ASTE KUTURALA

Maiatzak 20, bihar, Harri Jaia

- 11:00. Meza nagusia.
- 12:00. Hamaiketako Joxe Agirre eta Mañukorta bertsolariekin.
- 14:00. Bazkaria.
- 16:00. Bertsolarien bigarren saioa eta ondoren Xabier eta Mikel trikitilariak.
- 21:00. Afaria trikitilariet alaituta.

Maiatzak 22, etzi

- 18:00. Aralar eta Bedaio hitzaldia eskainiko du Juantxo Agirre Mauleonen eskutik. Ondoren afaria (helduek 12 euro eta txikiek 5 euro ordaindu behar dituzte).

Maiatzak 23, igandea

- 11:00. Mendi ibilaldia Artubitik.
- 16:00. Haurrentzako musika tresnen lantegia, Sointek taldearen eskutik.

Ekainak 20

- IV. Mendi eta Bizikleta Martxa egingo da.

maiatzean Jaungoikoari eskaria egiten zitzaion erauntsirik gerta ez zedin. Horretarako, meza eta prozesioa egiten ziren. Ondoren, festa giroan ospatzen zuten eguna. Horrik, gaur arte mantendu den ohitura.

Mendia eta musika tailerra
Astebukaeran emango diote jarraipena Kultur Asteari. Larunbatean mendiar buruzko hitzaldia emango du Aranzadiko Joantxo Agirre Mauleonek eta ondoren afaria ere izango dute.

Igandean, mendi ibilaldia egingo dute, PR-Gi 112 Bedaio Itzulia, hain zuzen. Azkaraten egingo dute atsedaldia eta bakoitzak bere janaria eman beharko duela argitu dute antolatzaileek.

Arratsaldean, haurrentzako musika ikuskizuna egingo du Sointek taldeak. Jolas eta parte-hartzearen bidez, musika tresnen forma eta soinua erakutsiko diete gaztetxoek. Abesti herrikoiekin, haurrek abestu eta dantzatu egingo dute.



Harri Jaia egunean, urtero legez, meza eta bazkaria egiten dira. HITZA



PR-Gi 112 Bedaio Itzulia ibilaldia egingo dute igandean. HITZA

Eraman soinean...

Helduen elastikoak
15 €

Neskak
ZURIA
MUTILAK
BERDEA

NEURRIAK:
Neskak: S, M, L, XL, XXL
Mutilak: S, M, L, XL, XXL
Haurrak: 3-4, 5-6, 7-8, 9-11

Haurren elastikoak
12 €

LARANJA
BERDEA

mantangorri

Laburrak

Birziklapenaren inguruko tailer mugikorra Areson

ARESO » Herriko Eskolako ikasleak 15:30ean plazatik aterako dira eta herrian zehar lurrean aurkitzen dituzten zaborrak bilduko dituzte. Gero zaborra sailkatu eta dagon ontzietan sartuko dute. Tailer mugikorraren helburua, txikitatik birziklapenaren garrantzia ohartaraztea da. Birziklatu ostean sortzen diren materialen adibideak ere erakutsiko zaizkie ikasleei. Amaieran, egindako lanaren ordainetan, parte-hartzaileei patatak, pastatxoak eta edaria banatuko dizkiete.

Eusko Legebiltzarkideak Larraulgo eskolan

LARRAUL » Herriko Eskola bisitatuko du gaur 10:00etan Eusko Legebiltzarrak. Bisitaren arrazoia, Udalak eta Guraso Elkarteak, martxoaren 23an, Lehen Hezkuntza zerbitzua jartzeko eskatu zutela da. Legebiltzarrak, gehiengo osoz, Lehen Hezkuntza zerbitzua jartzeko eskatu zion Hezkuntza Departamentuari, PSE-EE ez beste alderdi guztien babesarekin. Bisitarekin, bertatik-bertara ikusi eta ezagutuko dute Hezkuntza proiektua, herria eta azpiegiturak. 12 urtez beharako 60 ume daude Herriko Eskolan. Ikasle kopuru horrekin eskola propiorik ez duen Gipuzkoako herri bakarra da Larraul. Jaur-laritzak 2010-2011 ikasturterako eskola propio jartzeko konpromisoa hartu zuen Udalarai igorritako erresoluzioan.

Atsedena udako kanpaldia antolatu du

TOLOSA » Atsedena aisialdi taldeak udako kanpaldia antolatu du aurtenera. San Roman de Camerosera (Errioxa) joango dira, txikiak astebete eta helduak bi aste kanpaldia izango dutelarik. 8-11 urte bitartekoak uztailaren 25etik abuztuaren 1era arte joango dira. 12-16 urtekoak berriz, uztailaren 25etik abuztuaren 8ra arte egongo dira Errioxako herrian. Gurasoentzat bilera antolatu dute maiatzaren 28an, 20:00etan Atsedena lokalean. Interesatuak, izena emateko 635-74 64 47 telefono zenbakira deitu behar dute.

Amasan bertso afaria antolatu dute ostiralean

AMASA » Amasako Uxo Toki Elkartearen ostiralean, maiatzaren 22an, bertso afaria egingo dute. Bertsolariak Amaia Agirre eta Aitzol Barandiaran izango dira. Afarirako sarrikerak Amasako Iturri Goxo jantxan daude salgai 20 eurotan.

Ibilaldira joateko autobusa antolatu du Galtzandiak

TOLOSA » Bermeon maiatzaren 30ean ospatuko den Ibilaldirako autobusa antolatu du Galtzandi Euskara Elkarteak. Autobuseko txartelaren prezioa 12 eurokoa da, bazkideek berriz, 10 euro ordaindu behar dituzte. Tren geltokitik aterako da autobusa 09:00etan eta 19:00etan itzuliko da. Izena Galtzandin egun behar da.

Gozatu uda berriaz

Noiz eta nola egin eskaria?

1. TELEFONOZ: 943-30 43 45
2. WEBGUNEAN: www.berria.info
3. POSTAZ: harpidetza@berria.info

Maiatzaren 23ra arte
aukera izango duzu:

Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**

E Elkarrizketa

JON ANDER KARRERA ▶ Areto futboleko jokalaria

«Gazteek taldeari eutsi diote eta horixe zen helburua»

Tolosa ▶ Jon Ander Karrerak 17 urte eman ditu Ibarako areto futbol taldean eta omenaldia jaso berri du jokatzeari utzi dion urtean.

IMANOL GARCIA

Ibarako areto futbol taldean, egun Lauburu K.E. izena duena, 17 denboraldi egin ditu, horietan 15 lehen taldean, Jon Ander Karrerak (Tolosa, 1976). Pasatu berri den asteburuan, denboraldiko azken partiduan, omenaldia egin dio taldeak. Azken urte hau ez da berak nahi bezalakoa izan, lesio batengatik denboraldi erdian jokatzeari utzi behar izan ziolako.

Nola bizi zenuen omenaldia?

Urte asko izan dira taldean. Omenaldian familiakoak, herriko jarraitzaile asko... izan ziren bertan. Oso hunkigarria izan zen, beti gogoan izango dudana egun zoragarri horietako bat.

Nola izan da zure azken denboraldia?

David Pradosen baja garrantzitsua ondoan, aurten apustu bat egin nuen, pertsonalki aurreko denboraldian ez nuelako oso gustura amaitu, eta erabaki nuen beste urtetxo bat egitea gazteei laguntzeko. Denboraldi erdira iristerakoan izan nuen lesio garrantzitsua bat. Pentsatzen genuen abduktoreetako arazo bat zela, baina azkenean aldakaren desgastea zela detektatu zidaten eta alde batean kartilagoa falta nuela. Hori dela eta hezurrarri jokatzen, eta goizetik gauera utzi behar izan nion jokatzeari.

Ezusteko txarra izango zen zuretzat horrelako lesio bat zenuela jakitea.

Kolpe oso gogorra izan da, nola edo hala barrutik eramaten den horietakoa. Nik gazteak oso estimu onean izan ditut beti eta beti jarraitu dut taldera joaten, jolastu gabe, animoak ematen eta ahal dela bultzatzen, gure garaian izan genituen aukerak beraiek ere izan ditzaten.

Lesioaren aurretik nolako denboraldia ari zinen egiten?

Kapitain bezala jokatzeko ari nintzen eta gainera dezenteko ari nintzen parte hartzen. Entrenatzaileak eskatu zidan beste urte bat gehiago ere egiteko, eta behintzat urte hau asmoa nuen osorik egiteko. Familia izan berri dudanez, ziurrena azkeneko urtea izango



I. GARCIA

zen, baina ezustekoa izan da lesioarena eta batez ere lastima horrela bukatu behar izana, batik bat 17 urte horrelako klub batean egon ondoren. Horrelako afizio ona,

«Bizi izan dudana etaparik politena bigarren mailara igotzea da; ia profesional bezala bizi zenuen gauri»

joko ona eta esperientzia lartzak bizi ondoren, horrela bukatu behar izana. Baina, bestalde, asko poztzen nauen gauza da, eta hori omenaldian esan nuen ere, ikusi

dela gazte hauek beraiek taldeari eutsi diotela eta horixe zen helburua. Aurten, nahiz eta pertsonalki pena den taldea horrela uztea, oso gustura nago ikaragarriko denboraldia egin dutelako.

Azkenean laugarren amaitu du taldeak denboraldia. Bigarren amaitzeko aukera ere izan du azken jardunaldira arte.

Egia da azkenean nahiko justu iritsi direla. Jokalari batzuk bajaran egon gara, eta normala da lesio batzuk tartean izanda, bajori bat izate bukaeran. Esan bezala, ikaragarriko denboraldia egin dute eta balantzea oso-oso ona da.

Ba al duzue mailaz igotzeko aukerarik?

Printzipioz bakarria igotzen da gora, lehenengo gelditzen dena. Berak ez badu nahi, bigarren gelditu denari ematen zaio aukera, eta horrek ez badu nahi hirugarrenak. Ekonomikoki esfortzu handia izaten da igotzea. Gure aldetik, trantsizio puntu batean ibili gara azken urteetan. Atera behar genuen gauza positiboena da nabarmentzen ari naizen hori da, gazteek aurrera atera dutela taldea, tartean betetako baten bidez. Entrenatzailearen lana ere goraiatu behar da.

Nola egiten da hainbeste urtetan talde batean, maila horretan, aritzeko?

Ilusioz betetako proiektu batean sartu nintzen. Beti gustuko izaten duzun gauzetan irautu ahal da. Zorionez, fisikoki ahalmen nahiko oneko jokalaria naiz. Nahiz eta lesio batengatik erretiratu, zorte handiko jokalaria izan naiz hainbat urtetan ez dudalako izan gauza graberik.

Eta forman egoteko? Asko eskatuko du areto futboleko maila horretan aritzeak.

Jokoa oso garrantzitsua da, baina Ibarako talde honetan oso oinarritzakoa izan da. Hori oso garrantzitsua izan da eta horrek emaitza onak eman ditu. Zaintzea ere oso garrantzitsua izan da. Neuk ere beste edozein gazte bezala parandaxoak egin izan ditut, baina asko zaindu eta lan asko egindakoak izan gara urteen poderioz.

Zenbat urtetan izan zinen zilarrezko mailan?

1996an hasi nintzen lehenengo taldean. Eta 1997an igotzen eta zazpi edo zortzi urte izan ginen bigarren mailan.

Beraz igoeran ere parte hartu zenuen.

Ni David Pradosekin batera igo nintzen zilarrezko mailara. Lehenengo taldera jauzi egin genuen urtean, bigarren gelditu ginen. Bigarren urtean denboraldi oso ona egin genuen eta oso erraz igotzen gora. Tokatu zait igoerako urtean egotea eta gainera denboraldi oso ona eginez.

Nahiko berezia izango zen Ibarra bezalako herri batek zilarrezko mailan taldea izatea. Nola bizi izan zenuen garai hori?

Nik esango nuke bizi izan dudana etaparik politena dela. Ia jokalaria profesional bezala bizi izan genuen. Afizioaren zaletasuna ikaragarria zen. Kiroldegia garaino gaur egun lehenengo mailan dauden taldeen aurka, tartean Bartzelona.

Oso maila altuko lehiaketa zen eta oso gustura bizitzeko urteak izan dira.

Eta nola bizi zenuen mailaz jaisteak?

Eta nahiko gogorra pasatu genuen hor. Batik bat hirur-lau jokalaririk, tartean denbora gehien eman dugun bi jokalaririk, Davidek eta biok. Nahiz eta saiatu ginen baliabide guztiak lortzen, azkenean ez zen posible izan. Erabakia izan zen jarraitzea, produktu berri batekin. Taldeko jende gehienak utzi egi-

«Taldea hurbiletik jarraituko dut, laguntza emanez modu batera edo bestera»

ten zuenez, jende gaztearekin aurrera jotzea erabaki genuen. Apustu pertsonalak izan ziren eta gogorra izan zen. Lehenengo urtean, mailaz jaitsi ondoren, gogorra izan zen ere. Jokoa polita zen, baina emaitzak ez ziren nahi bezalakoa.

Azkenean baloratzen dudana da urteen poderioz maila hori erakustea lortu ahal izatea, batik bat gazte jendearekin.

Memento berezi bat aukeratu behar bazenu? Lorpenen bat, partidaren bat...

Partida batzuk eduki ditut oso gustukoak, batez ere gol asko sartzen dituzun horietakoak. Baina ni gelditzen naiz igoerako urtearekin. Bizitakoa bai afizio mailan, bai taldekide mailan... hori ahazten ez den esperientzia izaten da.

Mementorik gogorrena galdetuz gero, jaitsierarena esango duzula pentsatu daiteke.

Bai, gogorrena izan zen jaitsierarena, pentsatzen genuelako nolabait bai Diputazioaren aldetik, bai beste udal batzuen bitartez laguntza jasoko genuela. Saiatu ginen batik bat hirur-lau jokalaria maila mantentzen eta ordu luze askoren ondoren ez zen lortu eta hori gogorra egin zitzaigun.

Nola definituko zenuke zure burua jokalaria bezala?

Esango nuke apasionatua naizela, fisikoki nahiko dotatua, baina batik bat gogoa, ilusioa eta lana aipatuko nituzke. Garrantzi handia ematen diot ondo egoteari.

Loturarik izaten jarraituko duzu taldearekin?

Ezin esango dut bat-batean alde batera utziko dudarik. Beti hurbiltasun puntu bat izango dut. Entrenatzailearekin harreman oso ona dut. Jokalariekin ere oso harreman estua dut. Lesioa ere begiratu nahi dut, ea gauzak nolabait hobetu daitezkeen, nahiz eta lehiaketa alde batera utzi. Hurbiletik jarraituko dut lagunduz modu batera edo bestera. Entrenatzaileekin ezin duenaren bere ordez joanez... Horrelako kontuetan. Orain hilabete familia izan dut ere. Denboraldi arraro honetan, kirol mailan hala amaitu arren, nire bizitza pribatua badaukat bizipoz hori.



Peru-Harri bisitatzen joaten denak kanpoaldean Euskal Herriko historiarekin lotutako eskulturak ikusi ahal izango ditu. A. IMAZ

HARRIEN MINTZOA

Kultura » Iñaki Perurenak kirola, historia, mitologia eta gizakiaren eboluzioarekin lotzen du harria Peru-Harri museoa.

AGURTZANAE BELAUNZARAN

Leitza eta Uitz lotzen dituen errepide zaharra hartu eta baserriak bakantzen doazen heinean, gezi handi batek eskuinetara hartzeko agintzen du. Pista zuria jarraituz, mendi kasko-kaskoan dago Peru-Harri. Ikuspegi bikaina du baserriak, Leitza lepoan, herria zainduz.

Sarreran, Leitza herria 1956tik 2009 arte egon zen arkuak ematen dio ongietorria bisitariari. Aurrez-aurre, harritzko baserri galanta. Eta baserriaren belazetan, trikuharriak, harrespilak eta eskulturak.

Peru-Harri museoa da, harria museo, hain zuzen.

Harriaren inguruan gogoetak

Bisitariz beterik dago baserriaren barrua HITZA han izan denean. Gidari lanetan, harri-jasotzailea bera, Iñaki Perurena.

Garai batean, ukuilua zen hartan, harri-jasotzaileen argazkiak daude leitza herriaren gogoeta filosofoiko ondoan dituztela: «Peru-

Harri agertoki bat da eta historia bat azaldu nahi du; barrero indarrak, jentilen indarrak eta mitoa- ren indarrak batzen direlako daude oraindik harri-jasotzaileak». Harri-jasotzaileen izatea hiru indar hauen metaketa dela azaltzen du Perurenak, «gure harriek leiho eta kabi» direla ere badiu leitza- rrak. Izan ere, harria babestu da bera eta aldi berean harriarengatik, harri-jasotzaile izateagatik, mundua zabaldu zaio begien aurrean. Plazaz plaza ibiltzetik hasi, jende berria ezagutzetik pasa eta buruan zuen proiektuari forma eman arte. Harriek kontatzeko duten guztia bildu du museoa; historia, antropologia, natura, euskara eta kirola nahastu arte.

Perurenaren azalpenei adi daude Iruñeatik etorri diren jubilatua. Gizakiaren historian eta eboluzioan harriak izan duen garrantzia ari da. Ezagutzen diren antzinako zibilizazioek egindako lanen adibidea jarritz; egiptiarrek harriekin egindako piramideak, erromatar eta greziarrek utzitako

arkitektura arrastoak, inkek Machu Pichu eraikitako hiria, maiek eta aztekek Ertamerikan eraikitako piramideak, Txinako harresia eta gure mendietako Trikuharri eta harrespiletaraino.

Azalpen historiaren jantzen du Perurenak lehen saioa eta harri-jasotzaileen lanarekin lotzen du, «mundu moderno honetan harria oinarri mantentzen duen kirol bakarra delako harri-jasotzaileen lana». Ondoren, harri-jasotze saio baten erakustaldia eman die bildutako. Harri-jasotzaileen irudiaz ere badihardu: «indartsua, astaki-

«Barruko indarra, jentilena eta mitoarena batzen direlako daude harri-jasotzaileak»

loa eta morroskoaren irudia» duelako askorentzat, baina «indarra dutela ukatzerik ez badago ere, 300 kiloko harria bizkar gainera aletxatzen baitugu, horren atzean, bada prestaketa eta zainketa lan bat beste edozein kiroletan bezala». Perurenak egiten duena maite duela dio, «harri-jasotzaileak euskaldun izateko modua» dela nabarmentzen du. Hau aipatu bezala, eskua luzatzen du horman

idatzia duen gogoetara: «Bihotzean jaito, buruan bizi eta eskuiekin landu» dio idatziak. Bideo batekin ematen dio amaiera lehenengo solairuko saiori, hiru solairuko baserriari. Hogei minutuko bideoan, irudiekin ilustratzen ditu emandako azalpen guztiak. Harri-jasotze saioek hartzen dutelarik indarra, artxibo irudi zaharrek eta oraingo berriagoekin.

Antropologia, historia, mitologia, euskara, kirola...

Bigarren solairuan gai asko jorratzen dira, baina denak dute harria- rekin lotura. Trikuharriak eta harrespilak ageri dira Euskal Herriko mendietako irudietan. Heriotzaren aurrean megalitiko garaiko gizakiak, harriekin egiten zuten errepresentazioa azpimarratuz.

Erromatar garaiko eraikin esan- guratsuetan, harriak zibilizazio ezberdinetako arkitekturan izan duen garrantziarekin lotzen ditu. ffl

Historia eta antropologia lan- tzen ditu beste txoko batean, giza- kien eboluzioan Harri Aroaren ba- naketekin; megalitiko, paleoliti- koa eta neolitiko. Munduaren sorreratik, gaur arte, *homo-sapien- sa* arte, gizakiaren eboluzioa erakus- ten duten adibideak daude.

Euskal indigenak dioten testua- ren parean geldialdia egin eta Hego Ameriketatik etorri ziren Mapuche, Quechua eta Aymara in- digenek Peru-Harri bisitatu zute- nekoa gogoratzen du. Harriak eta

«Mundu moderno honetan, harria oinarrian mantentzen duen kirol bakarra da gurea»

euskal mitologiaren historiak kon- tatu zizkienean, «beraien bizitzan oso gertukoak» diren gauzez ari zela esan zien indigenek harri- ja- sotzaileari. Hau entzunarekin, gi- zakiaren eboluzioa munduko edo- zein tokitan berdintsua izan dela azpimarratzen die bisitariari.

Tibeteko harri bat ere bada era- kusgai: «lagun batek ekarri zidan Tibetara egindako bidaiaren batetik eta hango sinesmenean, harriak berak, otoitz egiten du harriaren aurretik norbait pasatzen den al- dioro». 200 kiloko harritik hasi eta 320 kilo arteko 13 harri daude buel- tan-bueltan. Tartearen, Iñaki eta Inaxio semearen argazkiak ere ba- daude, harri-jasotzen.

Euskarak ere badu tartea Peru- Harrin, baita bertsozartzeak ere.



Ameriketara doan semeari bertsoa kantatzen dion aitarena, doan tokira doala ere euskaldun izatea zer den ahaztu ez dezala diona.

Solairuaren erdi-erdian, leitzarrikak baserriaren aurkitu zuen harritzko pieza bat dago, erlikia bat. Aranzadi Zientzia Elkarteak neolitiko garaioa dela baieztatu. Baserri inguruan egindako indusketan aurkitu zuen harri landuko aizkora.

Herri kirolen museo etnografikoa

Baserriko ganbara, azken solairua, herri kirolen museo bihurtu du. Arga jokoa, lairiak, ahari jokoa, lasto jasotzea, ontzi eramatea, txingak, ingudea, harrizulataileak, trontza, zakulariak, harri-jasotzaileak eta abar luze bat biltzen dira bertan. Dagozkien tresnekin,

Baserrri inguruan aurkitu zuen erlikia bat du erakusgai: neolitiko garaiko harritzko aizkora

argazkiek osatzen dute elementu grafikoa. Zakularien jatorria kontatzen die bildutakoiei. Kontrabando garaietan, mugak ahal ziren azkarren pasa behar izaten ziren eta hortik, zakua bizkarrean lasterketak egitea.

Peru-Harri inguruak

Baserrriaren erraiak ikustekoak diren bezala, inguruak, kanpokoak,

osagarri dira harrien historiaren museoa. Bi leize daude baserritik gertu, sorgin eta jentilen bilgune izan zirenak. Leitzako mitologia istorioek, jentilen orroa inguru hauetatik entzuten dela diote. Baserriaren karobia ere berreskuratu du Perurenak. Lehen, baserri oro

Amerikako indigenentzat ere «osogertuko» gauzetaz mintzo da Peru-Harri

«Gizakiaren eboluzioa eta sinismenak berdintsuak izan dira munduan guztian»

izaten zen karobi zulo, berritu eta baserri giroan, harriak zuen garrantzia gogorazi nahi izan du horrela. Horretaz gain, katapulta, harrispilak eta bost eskultura egin ditu harri-jasotzaileak berak, euskara, historia, mitologia eta kirola nahasten direlarik harritzko eskulturretan. Museoaren inguruan daude, kanpoaldean eta hauek dira emandako azalpenak:

Eskua: Euskararen errepresentazioa litzateke, Jorge Oteizaren gogoetari forma emanez. Eskultoreak gizakia hasiera batean eskuekin komunikatzen zela zioen, eskuera. Gero etorri zen euskara.

Beso soka batez harriari loturik: Orreagako guda gogoratzen du besoak. Mitologiak dionez, Carlo Magnoren tropetako gerla-

ria zen Roldanek, San Migelgo baseliza suntsitzeko harri bat lotu zuen eskuan.

Harri-jasotzailea: Eskulturarik handiena da, ikusgarriena. Harri-jasotzaileei omenaldi bat.

Txapela: Trikuharrien irudikapena diren harriek, gainean txapelaren formako harria dute. Aitari eskainitakoa da eskultura.

Ezpatarekin dagoengizona: Nafarroako azken mariskala gogoratzen du. Gaztelarrek Nafarroa hartu zuteneko une historiko gogoratzen du.

Harriak protagonista diren museo honetan, elementu hotz eta gogor izatetik, mundua ulertzeko bide direla erakutsi nahi izan du Iñaki Perurenak.

Bisitariak belarriak adi-adi ireki behar ditu, harriek istorio politak baititutze kontatzeko, mitologiak, euskaldunon izateaz eta gizakion eboluzioaz.

Harriek hitz egiten duten tokia da Peru-Harri.

» MUSEOKO ORDUTEGIA

- **Eguna:** Larunbat, igande eta jai egunetan.
- **Ordutegia.** Goizeko 10:30etik 14:30era.
- **Prezioa.** Helduek 3 euro eta umeek 2 euro
- **Bisita gidatuak taldeentzat.** As- teko edozein egunetan.
- **Telefonoa.** 659-70 10 45.
- **Oharra.** Leitzarrek datozen 2 urteetan sarrera doan izango dute.



Baserrri barruan harri-jasotzaileen harriak eta argazkiak bildu ditu; Iñaki Perurenak berak eraikitako katapulta ere ikusi ahal da. A. BELAUNZARAN - A. IMAZ



Museoko harriek mitologia, historia, euskara, kirola eta abar erreparatzeko aukera ematen dute. A. BELAUNZARAN

Hilberria

BIXENTE UGALDE BARRUNDIA

Atzo hil zen, 80 urterekin, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
-Goian bego-

Senideak: Jose M^a eta Lucia Viguera (†), Juan (†) eta Antonia Igeltz, Imanol (†) eta Kontxita Larrarte, Carmen eta Daniel Ormazabal (†), Dolores eta Angel Osinalde, Jose Antonio eta M^a Dolores Senperena; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak. Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitetzela GAUR ASTEAZKENA, arratsaldeko ZAZPIETAN, ANDRE MARI JASOKUNDEAREN parrokia elizan gorpua aurrean dela egingo den hiletara. Eskerrik asko guztioi aldeaz aurretik.



SEGURA
2010eko
maiatzaren 19a

Helbidea: Iturriberri Aalde.
Oharra: Gorpua Beasaingo Goierri Beilatokian egongo da.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



17°
9°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	OSKARBI
BEROENA	17°
HOTZENA	8°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Kultura

■ **Lizartza.** Kultur Astea: 16:30ean Takolo pailazoa; 20:00etan Inaxio Balerdiren hitzaldia dieta garbiaz.
■ **Irura.** Kultur Astea: 18:30ean Lotzo Musika Eskolako ikasleen emanaldia Kultur Astean.

Kirola

■ **Villabona.** 19:00etan Arratzain futbol zelaian Villabona eta Errealaren arteko partida.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Etxebeste, J. M. Gernikako Arbola, 3. 943 65 10 45.
■ **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

A Agurrak



Urte askoan printzesa!
Mara Olano Sanchez (Tolosa).

Gure pixpirinak urtebete, segi hain alaia izaten. Musutxo goxoak loar eta izebaren partez.



Bertsolaritza ikastetxeetan

BERTSOLARITZA • Bertsozale Elkarteak bertsolaritza lantzeko ikasturte osoko proiektua eskaintzen du ikastetxeetan. Proiektuan 300 ikastetxek eta 15.556 ikaslek hartu dute parte bukatzean den ikasturte honetan. Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan hedatutako proiektua da.

Ikasturtean zehar egindako lanaren erakusgarri, haurrek prestatutako emanalditxoekin bertso jaialdiak eskaintzen ari dira ikastetxe eta herrietan, maiatza eta ekainean zehar. Gipuzkoan *Ikastetxeak Bertsotan* izeneko 70 jaialditan 8.030 haur igoko dira oholtzara. HITZA

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>